

argitalpena

Kalean da 'Erokeria', proiektu txikitzaileen aurkako aldizkaria

Oarsoaldeko, Bidasoa Behereko eta Donostialdeko AHTren aurkako taldeek *Erokeria* aldizkariaren lehen alea kaleratu dute aste honetan. Bertan, azpiegitura handiko egitasmoei buruzko informazio anitz topa daiteke, hala nola Jaizkibelgo Superportuarena, Baiona-Donostia eurohiriarena eta haize erroten egitasmoena.



Argitaratzailea: AHTren aurkako hainbat talde

jaia

Aranako jaiak hasi dira Gasteizen

Gasteizko Arana auzoa jaietan da. Gaur, 18:30ean, txupinazoarekin hasiko da festa era ofizialean. Fanfarreek kaleak hartuko dituzte arratsaldean, eta ekitaldiak bata bestearen atzetik etorriko dira: kale antzerkia, haur jolasak eta abar. Jaietako lehen eguna gaueko kontzertuarekin amaituko da. Bertan izango dira Txapelpunk, Narco eta Nathan Puzzle.

EGUNKARIA
Narco rock taldea.

saioa: Silveira, Irazu, Maia, Zelaia, Juakin eta Elortza. Gaur, Soreasun, gaueko 22:00etatik aurrera.

BILBO. Aitor Mendiluze, Iratxe Ibarra, Arkaitz Estiballes eta Ainhoa Agirreazaldegia. Bihar, Plaza Barrian, 13:00etan.

DONOSTIA. Peñagarikano, Amaia Agirre eta Sebastian Lizaso bertso-bazkarian. Bihar, Arrano beltza elkartearen.

ERMUA. Xabier Amurizaren 'Bizkaiko kopla zaharrak' emanaldia. Gaur, gaueko 22:15ean, Zinemaren.

MUNGIA. Fredi Paia, Arkaitz Estiballes, Ortz Garitain eta Arkaitz Ugartetxea. Gaur, gaueko 23:00etan, Kox tabernan.

OIARTZUN. Bertso-afaria: Joxe Agirre eta Andoni Egaña. Bihar, arratsaldeko 20:30ean, Giriziria elkartearen.

VILLABONA. Aitor Mendiluze, Bixente Gorostidi, Millan Telleria, Txomin Garmendia, Jokin Sorozabal eta Amaia Agirre. Gaur, gaueko 22:30ean, Gurea antzokian.

USURBIL. Nerea Elustondo eta Iñigo Mancisidor. Gaur, arratsaldeko 15:00etan ariko dira, Udarregi Ikastolan.

ZARAUTZ. Aritz Aranburu, Iñigo Izaguirre eta Ministro. Gaur, bertso-afarian, 21:30ean, Arrano elkartearen.

musika

Erramun Martikorena Lasarteko Zabaleta auzoan (22:30ean)

Xabier Martin | DONOSTIA

Euskal kantagintza tradizionalen leku propioa eskuratu duten kantarietako bat izango da gaur Lasarteko Zabaleta auzoan: Erramun Martikorena. Halako abeslariak ez dira sobran Euskal Herrian azkenaldi honetan, eta bide horri ekiten diotenen artean askorik ez egotea kezagarria da, Martikorenaren iduriko.

■ **Negu partean ez dugu sarri ikusi Erramun Martikorena oholtzetan...**

Azaroan, abenduan eta urtarri-lean ez dut atsegin tauletan asko ibiltzea. Orain asteburu gehienetan emanen ditut kantaldiak. Seguru Hegoaldean ere Martikorena ikusteko aukera asko egonen direla. Gaur, Lasarten, laster Mendaron, Otsagin, Irurtzunen... Egia esan, Hegoaldean kantaldi gehiago ematen ditut, baina hori da Hego Euskal Herrian herri gehiago dagoelako.

■ **Nola ikusten duzu egun euskal kantagintza tradizionala?**

Ongi dago, baina egon zitekeen hobeto ere. Gazte batzuk badira kantagintzan, baina orain es-

ERRAMUN MARTIKORENA KANTARIA

«Nekazari mundua hirira hurbiltzen saiatzen naiz»



BOB EDME

kaintza oso zabala da, eta gehienek beste bide batzuk hartzen dituzte musikaren barruan. Nire iduriko, gutxitu egin da emeki kantagintzan dabilen jendea. Gazteekin lan handia egin behar da, xapelgoak eta eskola arteko ekimenak oso garrantzitsuak dira lan horretan.

■ **Euskal Herri osoan arrakasta handia lortu duzu zure kantuekin. Non dago Erramun Martikorenaren arrakastaren gakoa?**

Ez dakit, ba. Ni saiatzen naiz bizi naizen munduko giroa eta egoera abestietan azaltzen. Naturari garrantzi handia ematen diot, eta jendeak hori bilatzen du sarritan, hirian natura falta baita. Nik uste dut orokor-ki entzuleek ulertzen dutela nik esan nahi dudana. Nekazari mundua hirira hurbiltzen saiatzen naiz, bata bestearen beharra dutelako. Hor ikusten dut nire egitekoa.

■ **Ba al duzu esku artean egitasmo berririk? Disko berri bat edo, beharbada?**

Oraingoz ez. Baina agertu daiteke, bai, horrelakorik hilabete batzuk geroago.

dantza

BARAKALDO. 'El lago de los cisnes'. Bihar, arratsaldeko 20:30ean, Barakaldo antzokian. *Don Quijote* ekainaren 3an izango da, 20:00etan, Chaikovsky Opera eta Ballet Taldearen eskutik (Errusia).

DONOSTIA. Koreagrafo gazteen V. erakusketa. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Antzoki Zaharrean, Iratxe Aranak, Natalia Mongek, Marta Ortegak, Beatriz Txurrukak, Kontxi Lopezek, Isidro Zapaterok eta Nerea Urbietak hartuko dute parte.

IBILTZIETA. Larratz dantza taldea. Bihar, eguerdiko 13:00etan, Zaraitzu Ibarren Egunaren barruan, hainbat dantza egingo dituzte.

ORDIZIA. Dantzari Txiki Eguna. Ekainaren 3an, igandean, kaleetan

barna ariko dira, egun osoan.

ikus-entzunezkoak

BELAUNTZA. 'Ama-Dablan' ikus-entzunezkoa. Gaur, Kultur Etxean, iluntzeko 20:00etan, Ibon Aranalde, Rakel Estibariz, Jon Goikoetxea eta Patxi Nabasen eskutik.

HONDARRIBIA. Iruñeko Eguzki Irratiaren bide-emanaldia. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Olagarro kultur elkartearen.

GALDAKAO. 'Paisages y miradas de Africa'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Ganguren M.Tn.

OÑATI. Film laburren emanaldia eta mahai ingurua. Gaur, Santa Eskolastikako aretoan, arratsaldeko

19:00etan. Rivardo Bilbao, Eduardo Bajo Ulloa eta Fernando Lopez.

TOLOSA. Itoizeko soldadarioen 'European Tour' ikus-entzunezkoa. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Bonberenean.

hitzaldiak

DONOSTIA. 'New reproductive Technologies'. Ekainaren 4an, arratsaldeko 19:00etan, Koldo Mitxelena kulturunean, Lori Andrewsen eskutik.

'Las cinco menos cinco' obrari buruzko hitzaldia. Ekainaren 3an, San Telmon, Jose Mari Alemanen eskutik.

ERANDIO. 'Palestina: odol-huste geldiezina. Bihar, herriko tabernan, arratsaldeko 19:00etan,

Nestor Celliren eskutik.

ETXARRI-ARANATZ. ESAIten hitzaldia, kirolari profesionalentzat. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Kultur Etxean.

GASTEIZ. 'Desobedientzia lantzeko lan-taldea (Komunikabideak, kontsumoa)'. Bihar, goizeko 10:30ean, gaztetxean.

URRETXXU. Zuberoari buruzko hitzaldi publikoa. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Legazpi Dorretxean, Txomin Peillen eta Jean Mixel Bedaxagarren eskutik.

bestelakoak

ANDOAIN. Jose Mari Carrere ipuin kontalaria. Bihar,

arratsaldeko 19:30ean, Itzala tabernan.

DONOSTIA. Zirkoa. Aste osoan zehar, egunero 17:30etik 19:30era, Garbera merkatalgunean.

Kale jostailuen astea. Gaur jokuak izango dira arratsaldeko 17:00etatik, 19:00etara, Egia auzoko plaza handian, Antxeta Atsedenaldi Elkartearen eskutik.

EIBAR. Kalejira. Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Untzaga plazatik aterako da.

Ipuin kontalaria. Bihar, liburutegian, goizeko 11:00etan.

ERMUA. Eriz Magoa. Bihar, Ermuako ikastolan, 12:30ean.

ETXABARRI. Eriz Magoa. Gaur, arratsaldeko 18:00etan.

ETXARRI-ARANATZ. Euskal festa ofizialtasuna. Bihar,

ekitaldiak egun osoan zehar: herri-kirolak, bertsoak, musika (Akelarre), etabar.

IBARRA. Uzturpe Ikastolaren Eguna. Bihar, goizeko 10:00etatik aurrera, Zumardi Handian eta plazan.

LEGAZPI. Haztegi ikastolako ikasturte amaiera jaialdiak. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Latxartegi aretoan.

MUTRIKU. 'Aldizkarixa sortzen'. Gaur, Zabilen, arratsaldeko 19:00etan.

OÑATI. Liburuaren isla, ipuinen festa. Bihar, antzerkia, kale animazioa, jolasak, etabar, eguerdian.

ORDIZIA. Xilipurdi. Ekainaren 3an, arratsaldeko 16:30ean, plazan.

TOLOSA. Euskal selekzioaren eguna. Ekainaren 3an, ekitaldi ugari, egun osoan zehar.